



Erref.: SNSO/SFP/13494/2023

FORU AGINDUA ALDATZEKO TXOSTENA: 71/2012 FORU AGINDUA, IRAILAREN 18KOA, OSASUNeko KONTSEILARIAK EMANA, FARMAZIA-BULEGOEN MARJINEN INDIZE ZUZENTZAILEA APLIKATZEKO PROZEDURA EZARTZEN DUENA.

Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu da azaroaren 29ko 997/2022 Errege Dekretua, zeinaren bidez aldatzen baita maiatzaren 16ko 823/2008 Errege Dekretua. Errege dekretu horren bidez ezarri ziren gizakiendako sendagaien banaketa eta salmentarako marjinak, kenkariak eta deskontuak.

Errege dekretu horrek maiatzaren 16ko 823/2008 Errege Dekretuaren 2. artikuluko 8. apartatua aldatu du (kenkari-ehunekoak adierazten diren eskala eguneratzen du eta farmazia-bulegoek indize zuzentzailea aplikatzeko bete beharreko baldintzak zein diren esaten du).

Zehazki, urteko salmenta osoak aipatzen dituen apartatua eguneratzen du (235.000 euro izanen dira orain):

c) Aurreko urte naturalari dagokion ekitaldi ekonomikoan izandako guztirako urteko salmentak 235.000 eurotik gorakoak ez izatea. Salmenta horiek kalkulatuko dira jendeari saltzeko preziotan, gehi balio erantsiaren gaineko zerga.

Gainera, beste bi baldintza hauek gehitzen ditu:

"d) Zerbitzua ematea, eskura dagoen azken udal erroldaren arabera, 1.500 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietako herriei edo, agintaritzak eskudunak farmazia-prestazioaren estaldura edo sarbide egokia izateko, arrisku egoeran mugatu eta izendatutako beste gune batzuei.

e) Farmazia-bulegoak zerbitzua ematea aurreko urte naturaleko hamabi hilabeteetan, oporraldia kenduta."

Irizpide berriekin eta urteko salmenta-kopurua eguneratzeari esker, 26 farmazia-bulegok ez dute jada eskubiderik izanen marjinen indize zuzentzailea aplikatzeko. Beraz, eragin ekonomikoa Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren aldekoa izanen da.

997/2022 Errege Dekretu hori 2023ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean eta farmazia-bulegoen fakturazioari aplikatuko zaio egun horretatik aurrera.

Osasuneko kontseilariaren irailaren 18ko 71/2012 Foru Aginduak prozedura ezartzen du farmazia-bulegoen marjinen indize zuzentzailea aplikatzeko eta, hartara, 3. artikuluan jasotzen dira aipatutako indize zuzentzaile hori aplikatzeko farmazia-bulegoek zer baldintza bete behar duten.

Beraz, beharrezkoa da foru agindu hori aldatzea eta 997/2022 Errege Dekretuan jasotako baldintzak eguneratzea.

Gainera, beharrezkoa da foru agindu horren 4. artikuluko apartaturen bat eguneratzea, eskatzeko prozedura ezartzen duena, hain zuzen ere. Zehazki, honela geldituko da idatzita 4. artikulua:

4. artikulua. Eskatzeko prozedura

1. Aurreko artikuluko baldintzak betetzen dituzten farmazia-bulegoen farmazialari titularrek urtero aurkezten ahalko dute eskaera, Osasun Zuzendaritza Nagusiari zuzendua. Eskaera horretan egiaztatuko dute maiatzaren 16ko 823/2008 Errege Dekretuaren 2. artikuluko 8. apartatuan ezarritako baldintzak betetzen dituztela (errege dekretu hori azaroaren 29ko 997/2022 Errege Dekretuak aldatu du). Foru agindu honen I. eranskinean horretarako erabil daitekeen eskabide eredu bat dago.

Eskaerak eta, hurrengo apartatuan adierazten den dokumentazioa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Erregistro Orokor Elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera.

Eskaerak eta agiriak aurkezteko epea urtarrilaren lehen egun baliodunean hasiko da, eta otsailaren lehen egun baliodunean amaituko.

2. Interesdunek dokumentu, ziurtagiri edo adierazpen hauek gehitu beharko dizkiote eskaerari:

a) Aurreko urte naturaleko ekitaldi ekonomikoan farmazia-bulegoak izan dituen urteko salmenten frogagiria. Tributuen arloko agiriak aurkeztu beharko dira aurreko urte naturaleko salmenta horien guztien zenbatekoa frogatzeko, jendeari saltzeko prezioan (gehi balio erantsiaren gaineko zerga) kalkulatuta.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, zeinetan esanen baita foru agindu honen 3. artikuluan ezarritako baldintza guztiak betetzen direla, II. eranskin moduan foru agindu honi erantsi zaion eredu ofizialaren arabera.

3. Baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, Osasun Zuzendaritza Nagusiak behar den ebazpena onetsiko du. Horren berri emanen zaio farmazia-bulego eskatzaile bakoitzari, Nafarroako Farmazialarien Elkargo Ofizialari, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Farmazia Prestazioaren Kudeaketarako Zerbitzuari eta MUFACE, MUJEJU eta ISFAS entitateei, haietako bakoitzak hileko fakturazioan indize zuzentzailearen aplikazio bateratua egin dezan.

Farmazia-bulegoa eskualdatzen bada edo indize zuzentzailearen aplikazioa onesteko inguruabarrak aldatzen badira, ebazpenak galduko du indarra eta, kasua bada, bidegabeki jasotako kopuruak itzuli beharko dira.

Gainera, jadanik ez dute inolako zentzurik lehen eta bigarren xedapen iragankorrek.

Beraz, proposatzen da foru agindua aldatzea, txosten honi erantsi zaion I. eranskinean adierazitakoaren arabera.

Iruñean,

(Sinatua jatorrizkoan)

Farmazia eta Prestazioen Zuzendariorde
O-NOZ